

Bizi puskak

JUANJO OLASAGARRE

 **Susa** poesia

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.

Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.com/ebook>

© 1996 Juanjo Olasagarre

© edizio honena: Susa

cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu

<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>

Lehen edizioa paperean: 1996ko urria

Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz

Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea

Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu

Telefonoa: 943 83 26 55

Elektroposta: susalit@armiarma.com

Webgunea: <http://susa-literatura.com>

Orain bizitza paperezkoa bihurtzera doan honetan
eser zaitez, irakurle,

hartu liburua eta
idatz ezazu zeure izena hemen;
begira utzi dizut lekua:

Ni naiz.
..... urte ditut,
ongi baliaturik guztiak,
Ilea daukat, begiak;
maite dut , hagitz,
orduak eta orduak ematen ditut horretan.

A = Txoria kaiolan bezala sentitzen naiz orain.

B = Lehoiak Sabana bezala Mundua dut Zabala.

Aukeratu

A ala B.

..... (a)z kezkatu-
nago;

eta lana, dihardut,
bizi behar baita.

Horra bi lerro nahi duzuna para dezazun

.....

.....
Laxatuko zinen ezta?

Hemen da akabera, hasiko gara ostera:

Ni naiz

eta noizbait hilen naiz,

hartua zor

higatzea, ordea,

berez dator.

ESZENATOKIA

Nafarroako mendialdeko herri bat. Bi mila biztanle inguru. Mendiak eta basoak ugari eta lur sailak larre; industrializazioak, berrogeita hamarreko hamarkadan iritsi zenean, biztanle gehienei soroak utzarazi eta lantegietara eraman baitzituen. Horrek, paisaiatz gainera, mentalitatea eta mundu-ikuskerak aldarazi zuen. Laurogeiko hamarkadan ailegatu ziren (gazteen pozerako eta zaharragoen eskandalurako): Iraultza Sexuala, Beste Iraultza, Drogak eta Rock Radical Vasco hura.

PERTSONAIAK

agertu ahalako ordenan

Joxerra Agirre

Euskarako irakaslea. Poema liburu bat idatzi du elurraren izaera epikoa azaldu nahian. Aitortu nahi ez badu ere, andregai baten bila dabil aspaldi honetan. Zaila du, nolana ere, amodioa ez baita oso ongi ezkontzen errealitatea mitologia bihurtzeko grina txarrarekin. Endika Lakart atxilotu zutenean, Goardia Zibilak bila ibili zuen.

Mikel Urruti

Bosch etxeko biajante lanak egiten ditu. Angelines Berasategiren senarra. Liburu honetako sarrera poematik B aukera hautatuko luke.

Angelines Berasategi

Etxandrea. Mikel Urrutiren emaztea. Behin bizitza kamisoiez bizitzea erabaki zuen eta egun horretan dihardu. Koadrila guztia kezkatu duk.

Maddi Susaeta

Sorgina, emagina, kontseilaria, ukendugilea eta beste zenbait gauza. Etorkizuna makurtu egiten da bere aurrean.

Andres Basterra

Taberna bat dauka, Ana Yoldi Gomez bere andregaiarekin batera. Txikitatik dira aldemeneko eta adiskide. Gaztetan ikusitako eszena batek bizitza osorako markatu zuen.

Miren Yoldi Gomez

Ana Yoldi Gomezen ahizpa eta Graziana Gomez eta Venancio Yoldiren alaba. Kartzelan dauka nobittoa, Endika Lakart. Idazkari lana eta gartzelako joan-etorrietan doakio bizitza.

Endika Lakart

Euskal preso politikoa. Nemesio Lakarten semea, Miren Yoldi Gomezen senargaia. Egun, gogoan gorde daitezkeen baino gartzela gehiagotatik pasa ondoren, Badajozen dago.

Joxemiel Erreparatz

Igeltseroa. Botereari beti kontra egin behar zaiola uste duten horietakoa. Kontrara erretzen du, kontrara bizi nahi du, nahiz ongi asko jakin gero eta zailagoa dela. Daukan buru hotza eta zorroztasuna kamustu egiten dizkio, batzuetan, gorrotoak.

Josema Irutagoien

Itzultzailea. Urte luzez EEBBetan bizi izandakoa, baita Berlinen ere bolada batez. Leku horietan ikasi zuen, bere hitzetan esateko, «bizitzara nola erori». Berlinen bizi zela ezagutu zuen emazte duena. Bi alaba dituzte eta Iruñea inguruan bizi dira.

Xabier Bizi

Filosofiako irakaslea. Pausatua, gozoa, lasaia. Gaztetan tristurak eta ilunbeek tentatu bazuten ere, egun alegrantzia eta bizitzaren aldeko apustua egin du. Azken honetan Orixeren *Euskaldunak* poema leitzen ari da, Joxerra Agirrek hala gomendaturik.

Nikasia Urruti

Hirurogeita hamabi urte. Paulo Urrutiren arreba; Mikel Urrutiren izeba zaharra. Zerbitzari aritu zen

bolada batez Donostiako Victoria Eugenia, gero
Herrira itzuli zen atzera.

Martin Mann

Ingeniaria. Laurogei urte. Alemaniako Partidu
Komunistako partaide izateak jarri zizkion atzetik
Hitlerren atzaparrak. Horietatik ihesi ailegatu zen
Euskal Herrira. Lehendabiziko Mundu Guda
ondoren, Berlinera itzuli eta ezkondu egin zen. Ez
dauka seme-alabarik.

Debra Woolf

Estatubatuarra. Montgomery-n (Alabama) jaioa. San
Ferminetara etorri zen. Behin bukatutakoan
Donostian, Hondarribian, Baionan ibili zen, San
Fermin ondoren hainbat atzerritarrek egiten duten
moduan. Doktoretza tesi bat idatzi zuen Hemingway-
ren gainean.

Ana Yoldi Gomez

Tabernaria. Miren Yoldi Gomezen ahizpa eta
Graziana Gomez eta Venancio Yoldiren alaba.

Andres Basterra eduki izan du, edo dauka (kontu hauetan denborak maiz huts egiten baitu), urte luzeetan senargai eta negoziokide. Bizitzako gauzarik handiena amodioa zela irakatsi zioten; horretan bizi da, ikasitakoari jarraiki, amodioak agindutako zorientasun puska betegabeek sortzen dioten harridura eta tristeziaren artean.

Graziana Gomez

Venancio Yoldiren emaztea eta Perpetua Yoldiren koinata. Bakarrik hazi zituen bi alabak senarrak marinel aldegin eta gero.

Venancio Yoldi

Grazianaren senarra eta Yoldi ahizpen aita. Marinel aldegin zuen alabak jaio eta berehala, (jendearen zurrumurruen arabera) emakume bat tarteko zela. Marseillan hil zen bilatzen zuena aurkiturik: pasio aitorrezin bat (diotenez).

Perpetua Yoldi

Venancioren arreba eta Grazianaren koinata. Etxetik aldegin zuen hogeitun urte inguru zituela, zegoeneko

ondra galdurik, jendearen omenari kasu eginen
badiogu. Porturik portu ibili zen puta lanetan.
Herrira itzuli zen duela zenbait urte eta bertan
bizi da.

Lukas Oihenart

Trokelean aritzen da. Denborarekiko kezkak
elbarritu egiten du bizitzarako.

Txema Kortez

Ikaslea. EHGAMeko kidea. Iruñeko Takonera
Parkean asko ibiltzen da, larunbat gauetan batez
ere.

Alicia Garcia

Etxekoandrea. Sevillakoa. Josema Irutagoiennen
emaztea. Berlinen ezagutu zuten elkar, Alicia
alemaniera ikasten ari zela. Bi alaba ditu. Ments du,
izugarri, jaioterriko eguzkia.

Nemesio Lakart

Endika Lakarten aita. Andrea hil eta semea
gartzelara eramán ziotenetik arima erratu bat
bezala ibiltzen da herrian.

Tomasa Igantzi

Hirurogeita hamar urte. Etxekoandrea. Alarguna.
Angelines Berasategiren ama. Beti izan du atsegin
leitzea.

Paulo Urruti

Hirurogeita hamahiru urte. Mikel Urrutiren aita eta
Nikasia Urrutiren anaia. Nekazaritzan aritu da
bizitza osoa.

JOXERRA AGIRREK EUSKAL HERRIAZ

—a—

Elurra ari du. Ezer
ez da dirudiena. Isildu
du arratsak txalaparta.
Zinkurin dagi basoak
urrutian. Bizitza pasa da.
Lo dagite etxeek
fantasmal, sakon.
Mara-mara ari du.
Plazako aulki zurituak
balizko etorrera baten
esperoan daude hotzik.

Ailega zitekeen, oin hotsez
plazako elurra zikindu,
aulkiak begiratu,
etxean sartu, sutondoan
gelditu eta euskaldun oso izan,
mutilazio baten truk.

MIKEL URRUTIK
ANGELINES BERASATEGIZ
—b—

Ez dut amodioa aipatuko,
ni ondorat hurbildutakoaz
mintzatuko natzaizue:
negar egiten du gautzean,
muxina da eta, ohi duenez,
lur jota zegoen ezagutu nuenean.
Ez da ederra, ez da perkatxa,
ez nau gehiegi maite,
bere ilunbe betikoek
utziko ez baliote bezala.

Baina batzuetan
ilbeltza aldera etortzen da primadera.

ANGELINES BERASATEGIK
MIKEL URRUTIRI
—b—

Erakutsi zenidan Leichteinen aforismo hura ekarriz
norbait ezagutzea infinitoranzko bidaia omen da
eta ibiliaren ibiliz hurbiltzen gatzaizkiola iduri
ez ibilkizun duguna motzagoa delakoz
baizik eta ibilitakoa gero eta
luzeagoa delakoz

Horrela maite dut zure gorputza ahal dudanean
ilunbeek igazi argi-printza bezala
barneratzen zattaizkidanean

Horrela maite zaitut uste dut
ez biharko egunak suz eta soinu
ekarri digukenagatik
baizik eta atzokoak euri marmarrez
utzitako errauts jadanik hotzengatik

MADDI SUSAETAK
ANA YOLDIRENDAKO
ORAKULUA

—C—

Hau da izarren orakulua,
entzun jainkoen ulua:
gutxi iraunen dizu
egungo zorionak, izu
dabil gozoa bada ere,
ez da erabat zure.
Izarrek zure patua
dakarte elbarritua
bailitzen, areago
aztarnen arabera nago
tigrea beharrean mixina
ez ote den. Duzu erkina
osasuna, lagun,
eta geroa ilun.
Horratx minbizia apika,
atarian deika;
barka, ez da minbizia

baizik eta ahulezia,
mal du siecle: izpiritukoa
hainbat interesantagoa.
Zailtxo da lanarena,
baita ere maitasunarena.
Lana eginez goaz aitzina,
eta esana dago, jakina,
maxkala, zortea, maxkala
diruari dagokion atala.

Hau da izarren orakulua,
entzun jainkoen ulua:
Ez da jaio oraindik
enplegatuko zaituenik.
Lasai, hona konponbidea:
paratu sagardotegi dotorea
eta etzan jauzi alfarro
bizitzaz edatera oparo;
bigarrenari dagokionez,
geroak, poz zaitez,
izena dauka Andres
trukulun tres
trukulun tres
poltsa handia

baina dirurik ez;
sagardotegietan ardoa
eskatzen duten horietakoa.

ANDRES BASTERRAK
ANA YOLDIRI
—C—

Desioz zikinduriko aingeru bat
pausatu zen botila hutsen artean;
apoaurregiak zerbezagatik matxinadan
bi begiraden borroka otsoa,
gorputzak likatsu erbi dantzan.
Talking Heads ari ziren. Eskutik helduta
gauak irentsi gintuenerako
beranduegi zen. Poliziak
gorpu bila ziharduen, ordurako.

MIREN YOLDI GOMEZEK
ENDIKA LAKARTEKIN
VIS A VISETIK BUELTAN
—f—

Bukatu dun. Eraman dinate
ziega ilunetan zehar.
Prision Provincial. Badajoz.
Musurik ez, hutsarte beltza, hotz
porlan eta oinaze,
hurrengo hamabostaldia arte.
Ni, Miren Gomez, izanen naun
bere zarratuan laztana, bere kanpoa barnean.

JOXEMIEL ERREPARATZEK
ENDIKA LAKARTEN
ASKATASUNARI BURUZ
—f—

Halaxe etorriko zaio, hamar urte ondoren askatasun eguna.

Jarriko da zeruari begira eta pentsatu:
«Herrian nago, hemen ditut sustraiak,
harantzago zubia, hemendik aurrera
dena izanen da bestela herri maite honetan.

»Dena ahaztuko dut, senda ditzan denborak
gartzela eta bakardadearen zauri gaiztotuak,
ezti daitezen gorputz eta gogo urkilduak
aspaldiko amodio eta lagunen ukenduaz,
berdin dadila espazio zabalaz nire mina.

»Hemen zubia dago, harantzago uhaldea,
karrikan ezta arimarik ere». Eta lauhazka

ekarri dio gauak aitzolako egia: bakarrik dago
espazio zabalagoan oraingoan.

Halaxe etorriko zaio, hamar urte ondoren
askatasun eguna.

JOSEMA IRUTAGOIENEK
ENDIKA LAKART
BISITATU ONDOREN
—d - f—

Lagunak izan ginen, gero bizitzak,
badakizu, buelta asko ematen du,
banandu egin gintuen erauntsiarekin
zenbait aldegindako itsasuntzi baikinen.

Gurea, gurea diot, bai
pasioaren antzeko zeozer zen.
Gazte ginen, xamur, eta artean
berdea galdu gabea eta kontra,

mundu zitalaren kontra,
oro orokorraren kontra,
batez ere. Ez dut esanen
zein bide pamerial ibili genuen,

baina nik desio saldo ardorak
ikusten nituela bere begietan

egia berdadera da. Heltzeak,
jakina, berea egin zuen

manu militari ia; braust batean
akabatu zen dena. Ume mukizu,
gixon, gizon, hilotz mudantza baldarrak
ustekabeen harrapatzen gaitu guztiok.
Hura ezkerro ikusi, ikusi nuen
baina ezer ez zen berdin. Bizitzara
erori nintzen eta atzerrira aldegin.
Itogarri zitzaidan herri ziztrin hau

eta karlistada eta tradizio guztiak
eta koadrilaren endogamia nardagarria.
Gartzelan zela esan zidaten
edo leitu egin nuen, ez dut gogoan;

ez nuen ezer sentitu, aspaldi da
ezer sentitzen ez dudala. Gorrotoak
indartsu hazten laguntzen badu ere
inguruko guztia kiskaltzen du. Gaur

bisitan joan natzaio, sei urte, sei
daramatza gartzelan, ni bezain zahar,

eta galdetu dit zer moduz hi, Josema?

Eta txikiago iruditu zait nire pena.

XABIER BIZIK

—f—

Beharbada oker daude,
nork daki? Horrenbeste urte
leotzetan isiltasuna erditzen
gartzela, zarratua, gartzela.
Zeru puska karratuekin
geometria ezinezkoak marrazten,
nazkatuko lituzkeen, menturaz,
bizitza adabakiekin amestuz.

Beharbada oker daude
han barnean, gartzelan
sinboloak izatera kondnaturik,
baina sinesten dutenaren alde
eman dute bizitza.

Hemen kanpoan kalean
nork esan dezake beste horrenbeste?

JOXEMIEL ERREPARATZEK

—h—

Erre

erre eta erre
zigarroak erre
edo puroak
edo porroak
edo pipan
erre.

Hamabost urte
ume mukizu
gatibutza honen
hasieran
kezko kateak
eta paperezkoak.
Bixar firfirak
masail leunean
hastean,
gixontxo.

Erre

erre eta fu egin

umeeak dioten bezala
eta politika bilkuretan
zein interesantak:

Alternatiba

fu

Iraultza

fu ta ke

Aberria

fu ke fu

eta gela barrua

itto ez itto.

Che Guevara ere

(erretzen ez zuena

porzierto

asmatikoa

baitzen)

txiki

eta hits

gure zigarrozko

politikaren ondoan.

Erre

fu egin eta pipatu

Iparaldean dioten bezala

eta Zinemako atean
ezta Bogartek ere
gu bezain ongi
panpina esan.
Gixon
jada
iraultza sexuala gugandik
hasten duk
fu pipa fu
bakoitzarengandik
esan nahi dinat
eta esanen diat
Reich-en orgona ere
(gaira datorren irudia erabiltzearren)
nikotinazkoa omen.

Erre
fu egin eta pipatu
eta gauez
zerbezak eta rokanrola,
hitz bi, lau kanta
hiru igurtzimendura
bi ideia, mozkor hamaika
sakon-sakon sumindura

eta horretan, deslilura.
Goizez eta ez hain gazte
sinfonia fin
sinfonia den
iratzargailuaren osteko
txakur eztula
kostoma urratze
komuneko bonba
eta amaren oihua
«fuma puta hori
noiz utziko duk?»
fuma puta hau
eztula, kostoma, bonba,
hauspoen errebelioa
arnasa hartzeko ere
baimen behar hau
gorabehera
segi aurrera
eta sardina bakalau.

Erre
erre eta fu egin
fu egin eta pipatu
eta posmodernitatearekin bat

zein interesantak
zigarroa eskuetan
kamaleoiak
adibidez
antzinako garaiez mintzo
lightki
eta edadetuz
kantatzen genuen
gure koadrilan
gure koadrilan
desagertu franko
jada koadrilarik ez dago
ez orain eta ez gero.

Gero bizitza etorri da
eta badirudi
(gaira heldu irudia erabiltzearren)
grisa dela
garaiekin moldatzeko beharrezkoa dena.
Bada grisa
gaizki konpontzen omen
ke, erre, fuma,
pipa
eta fu egitearekin.

Horretan
EZ esatearekin gozaten dugunok
amore eman beharko
oraingoan
birikek,
hau arnasestua!
hau itto beharra!
agintzen baitute.

NIKASIA URRUTIK

—e—

Arrats gorri
euria egin du eguerdian
basoa ilun zegoen
karrika hutsik
etxea bare

Negar egin dut gogotik
aspaldi ez bezala
oinaztura ikusi dut zeruan
bakarrik nago
urruti dago nire gaztaroa

Atertu du Gaur ere
nire nobioa ez da etorriko

MARTIN MANN-EK
(BERLIN)

—e—

Esanen duzue
zer egiten zuen alemaniar batek
Euskal Herria deitu leku batean
han 42. urte inguruan?

Horroretik desertatu.
Ez zen leku egokiena, badakit,
baina Hitlerrek lortu ez zuena
ez zuen Francok lortuko.

Irrati aparailuak konpontzen nituen
herriz herri, etxez etxe.
Gaztea nintzen eta
larrua salbatu izanak
bizitzara amildu ninduen.
Ez dago arriskua bezalakorik
pasioaren ziztada potintzeko.

Ederra zen
eta nik loreak eramaten nizkion
promesa gazteekin batera. Atertzean
uhalde ertzetik ibiltzen ginen
ihesi zihoazen hodeiei begira.

Gerra amaitu egin zen
eta ni Berlinera itzuli,
orduan bete uste nituen promesekin.
Posgerra latza izan zen
oso latza.

Berlinek oinezkoen hilerria zirudien,
karriketan zebilen jendea
deslai, ogi bila
eta errua jaten.

Agian oraindik bizirik dagoke;
eta nork daki,
gauaren mozorropean
bere senarraren ondoan etzanik
ni nauka gogoan
oinazturak, une ilaun batez,
iraganeko gela itxi bat argitzean.

MIKEL URRUTIK

—e—

Haren etxean ez da aspaldi inor sartu;
izan zuen bai, izan zuen,
urteak iragan dira, kontu zaharrak,
loreak ekartzen zizkiona,
losintxen maizterra, mintzeder hura.
Eta horretan ez zen gehiago etorri,
ez zuen bilatu, esperatu egin zuen
krabelinak eguerdia bezala.

«Garaileen arma da pazientzia dio
gure Jaungoiko Handiak».

Urteak etorri urteak ahitu,
esperoa itzultzen zion ispiluak.

Gaur mutxurdina esan diote
lehendabizikoz eta herioz
eta hartaz akordatu da.

«Egia esan noiznahi da garaia».

MIKEL URRUTIK
ANGELINES BERASATEGIRI
—b—

Gosari hotz baten gisa
heldu da goiza
limoiez zamatu azukrea

Desioa esaten diogu baina
ohitura da hogeita hamarren gramatikari
egokitzen zaionean

ezen zure eta nire artean
zolda bezalako egunak gelditzen baitira
harat-honat neketsu bat

non gorputzak utzi egiten baitio
bererari eta gogoak erroak botaz
azturetan hedatzen baita

Bai laztana badakit goizegi dela
eskuartean darabilgunaren inventariuma egiteko
badakit iragana

zoritxarrera ere ez dela ailegatzen

Gure tenorea maitea

azul higatu eta erratu hau

banaiz ez-naiz eskasa dira

ezen nostalgia arakatzeko ere

beharrezko baitira urte gehiago

eta batez ere bakoitzaren orbainak

besterenak bailiren onartzeko patxada

eta jakintsu (nolabait) eta zahar izateko sena

Hortaz maitea dagoela gaur hau

bere minetan eta maita dezagun elkar

tristuraz non nabigatua eginik

MIKEL URRUTIK
ILBELTZAREN 8-AN
ISPILUAREN AURREAN
—b—

Pasako ehiza. Egun batean jaiki
eta ez duzu zure burua topatu,
ispiluan orein zauritua irudi
arras beste batek zaitu begiratu.

Akaso baso umelaren zokoetara...
lainoa, goroldioa, zoaz ihesean,
zakurrak xaxaka heldu dira xerkara,
zureak, akaso, ez du egingo ilunbean.

Ehiztariaren begietako errainua
zure patua. Tiro hotsa izango da
eta eztia bezalako abandonua.

Mara-mara eroriko da denbora
orain orein azulizuen hilerrian
eta mina hedatuko da konterrian.

MIREN YOLDI GOMEZEK AHIZPAREN AMODIOAZ

—C—

Elkar maite zutela?

Maite zutela lar esatea litzateke.

Ezkondu egin ziren. Gizartearen legera
eta Jainkoaren aurrean.

Ahizpa haurdun, koinatua
haragitarako txekorra bezala.

«Gero gerokoak» esan zidan ahizpak
eztei egunean. «Gero dionak
bego dio» pentsatu nuen nik.

Eta han joan ginen denok
ama, loreak, oturuntza eta poz
ustela, poz dekretatua baino
ustelagorik ez dago eta.

Jotzen zuela? Ez dut uste.

Kerida zuela? Ez da nahikoa gizon
bi emakumetarako.

Eztei egun beretik
heldu ziren mugara

nola haziak porlan gainera.

MIKEL URRUTI
ILBELTZAREN 8-AN AUTOAN
—b - f—

Paisaia geldiro ari zen labaintzen,
oro zihoan bare, oro heldu lasai,
hodei oldarkorrek, basoa han urrutian
egunero esnatzen den izakia bailitzen.
Zer egin bizitzeko norberaren indarrak
bina banatu behar direnean?
Eta munduaren gogo gaixoa
hitz neutroetan irratian:
«bere izena jakitera eman ez den
preso batek ihes egin du kartzelatik».
Euria tanta lodietan kristalera
hiltzera etorria: nola ehundu
amodioaren praktika amodioa
bakarlana baino ez denean?,
apika amodioago dateke
erantzun gabeen diraulakoz?
«Eta goazen orain gizarte gaietara:
gaur Iruñean ekitaldi ugari egingen da».
Zig parabrisaren doinu zag erritmikoa

sigi dagi bideak egunaren saga zuloa
urratu ezinik. Ihesi doa goiztegia.

Eta baliteke tristura pusketan
amodioa ernetzea? Kontuz!

«Nafarroako Gobernuaren eta»

Zig egin balazta zag ezkerretara

«Nafarroako Unibertsitatearen laguntzaz
antolaturiko jardunaldietan

zera hartuko dute gaitzat:»

Kontuz! Ezkerretara! ezkerretara!

«Heriotzari buruzko tratamendu informatiboa».

DEBRA WOOLF-EK
(ALABAMA)

—a—

Orduak zenbaturik izateak,
absurdoaren minondo eta
neke barearen arteko joan-etorriek
ez diote oroimenari pilatzen uzten,
nahiz batzuetan ezpata itsu
urragarri baten maneala
ezezagun batekin xiringa
konpartitu zenuenekoak asaldatu.
Pamplona Spain-en, esan zenidan.

So Montgomery. Sekula
ez du izan hiri honek
honen arnasa lasairik.
Eseri parkean. Animalia
otzan etzana dirudi. Begira
nola kulunkatzen dituzten
etxeek lizarren siluetak,
enbor eriak, arramak biluzik,
orbela lurrean, zirimoletan

negurako bidea seinalatuz.
Etzan aulkian eta errepara, hori
lainoak dira eta une hau beti
dateke. Murgil zaitez urdinean,
eder doa xoxoa hegan
lur baten bila, hotzari itzuri.
Ez entzun txor-txorra. Ez
gogoratu udatzenaren eztiak
hondartzako muttikoarekin
larrua jo zenuenekoa. Uxa
eta kontsola: ez dakienak
ez baitu errurik, eta zuk, orduan,
ez zenekien zure gaixotasun horrena.
Ahantz ezazu eta murgildu
urdin oparoan.
Izan gogoan zergatirik gabe
bihurtzen gaituela patuak zergati.
Baionan at the Basque Country, esan zenidan.

XABIER BIZIK
ILBELTZAREN 9-AN
GOIZTEGI ALDERA
—b—

Egin dute eztanda hiru esnagailuek
goiztegia, gorputza, oinazea, mundua
eta atzeko muinoetara dagi ihes loak

Goiztegia nagiak ateratzen ari da
gauetik jalgitako espia bailitzen
eta argia laztan zait otzan

Gorputza, sasildu soldadu hitsa
kera-kera datza denbora gabean
eta hemen da oinazea trostan

Mantso bergizarteratu da oinazea
ez da aztura bezalako ukendurik
eta gorputza jadanik ni

Kafea mahai gainean, zigarroak
bizitza sartzen ari da indarrean
eta mundua egunkarietan zain

Hara! Oro heldu da bat azkenean
Egunkariak hartu zabaldu
eta...

ahoa bete hilotz.

JOXERRA AGIRREK
ETXE ZAHARRETIK
ALDEGITEAN
—a—

Andoni Bergarakuarendako

Ez naiz paratuko negarti,
euskaldunen diskrezioa
hartuko dut aintzat:
norbera ez da gai serioa.

Tira, entzun ezazue
izan nahi nuen poeta,
mundua lepoan hartu
oihukatu «Gora ETA».

Herrira ere ailegatu zen
laurogeiak pasaxe, iraultza sexuala,
primadera herdoildu gisa berandu,
horra lezioa: gabezia ala.

Joatea banuen, gelditu egin
nintzen ordea: euskaldun
ez fededun, nekien
modu bakarra eta haurdun.

Horrela malbizi baikara
zorioneko erditzearen esperoan
hizkuntza larreko honen larrikumeak,
gureak (sikiera!) egin duelakoan.

Ez ditut aipatuko denboraren enbatak,
errai urdintzaile seme sasikoa,
ez ditut aipatuko tristura eta kanpaiarena,
elizakoa ez bakarkakoa.

Bizi nahi eta ezin aritu guztiak,
beldurra eta Guardia Civila,
ezta ere barauan eman gau luzeak
besarkada amultsuen bila

edo benetan maitatu emakume hura
hautsiapur gauez hondartza batean
edo nire burua bertan behera utzi aldiak;
hitz batean perifrasi betean

xahutu dudala bizitza,
hain handi heldu zaidan jantzia
baina emendatuko naiz, lasai,
eta barkatu lotsagabe honen atrebentzia.

Aipatuko ditut, bidenabar bada ere,
inguru triste honetako ozpinak,
putakume, astazakil, beneno guztiak
eta bereziki aurrealdeko atso ipurzikina.

Geroz, begi argi etorri bitartean, zin dagit:
aldamenek nahiko luketen aldamera
izanen natzaizue: gizon jatorra, ona.
Beratzen paratuko dut oroimena.

JOXERRA AGIRREK

—a—

Gaztaroko urteak etxez etxe eraman ondoren
nire ondasun oro autoan bildurik
egin dezagun kontu:
herri bat, nirea, non atzerritar
izan bainaiz ia beti, entendi nazazue,
maite dut bere paisaia, berdera
malkortu urdinkara hori,
mundua aisatzera etzaten den arratsaldea,
baso ozpelak, transparenzia
bideberria lainotzen eta abar eta abar.

Maite ditut, halaber, ukatuaren bortxaz,
euskalduntasunaren zera demontreko hori
bere baitan gordetzen duten gorputzak;
oi baina buruez, buruez ez dut ezer jakin nahi
nirearen matrakarekin badut aski!

Hala ere aitortu beharra dut,
denbora ukendu eztigarria dela;
non da nire gogoan han ez nire zangoa

legearen jarraitzaile sutsu izanik ere,
(ez aukeran aukera dudalako
baizik eta, azturaren azturaz, senez
bizitzarekiko iheslari naizelako)
gaur errazago nozitzen natzaiola
matraka pisu horri.

Sustraiei dagokionez, Sarriren poeman lez
aipatu nahiko nizekizueke, baina
ez dut liburua aurkitu, nire puskak
jada arkeologia direneko etxeren batean
izanen da, seguru; dena dela
urtero inausten naiz, ez hazi, edo loretu
edo fruitu ematearren, ustel ez nadin baizik,
eta ez delako hori bezain ariketa kilikagarririk.

Hartara Xabier Bizi nire lagunarenez
bizigintzan dihardut gezurraz egia eginez
edo, hobe, aldrebes ezen bizitza, izateraz,
gezurrez populatu egia biologikoa baino ez baita,
amarruz gidatzen ikasi behar den makina.

Eskuliburu gisa poema-liburu bat
idatzi dudala diotenak ere badira,

ezinbestean badut aitzakia:
inoiz urraduraren printze sentitutakoek
konprenituko naute, edo agente sekretuek
arerioaren armadan, edota bataila askotako
bentzutuek ezen mitologiak, seinaleek legez,
epikoa, propiala, labelgabea bada hobe,
gidatzen laguntzen baitu eta gogoratzuz
puskak biltzen.

Eta gogora datozkit, orain, hain gazte
egiten ninduen koadrozko atorra hura,
soinean eramaten nuen utzikeria artetsua,
euskaldun izateko jarrera harroxko hura
zeina tapiza bitxi baten gisa hedatzen bainuen,
edo alde zaharreko istudiante pisua
tunantez betea eta hozkailu hutsekoa,
edo iruzki, porro, bermutezko hainbeste
eta hainbeste goiztegi transparente.
Herrestan datozkit nire lagunak,
hilik baten bat, Mikel Urruti, adibidez,
bideberriak hain urruti eramandakoa,
jendaurrean besteak, bizitzarekin bakarlanetan.
Gogora datozkit iguriki ahala iragan
eta higatutako bizi puska hauek guztiak,

Baionako txango hura, adibidez,
Anaren ezetza, desamore bataio
eta gero hondartzan topatu nuen amerikar hura:
Debra uste dut, eta nola egin zuen dar-dar
gauak gure gorputzen pasiopean.
Gogora datozkit urteak
zeinak paisaia urdinkara hau bailiren
geldo eta mantso eta poll-pollka baitoazen.

ANA YOLDI GOMEZEK

—C—

Nola engainatzen gaituzten hitzek,
eta lagunek, zein zuri
egiten duten gugandik besteganako
bidaia. Tabernan geunden,

musika ona, zerbezak hotzak,
eta gu lagunarte alegera eta
perfektua ginen (esate bat da).
Noiz eta orduan behar, orduan

sortu da, barra-barra eginda,
odol egarria begi mozkortuetan.
Neronek lagundu diot komunera
sartzen eta han betikoa.

Musuz zikindu dugu komuna zikina
eta ahitu gabearen simulakro
errepikatuz ospatu dugu atzera ere
atzera ere elkarrekin gaudela.

Arropak eta puskak bildu ditugu,
bestalde aparte batetik begiratu
eta joan egin da. Negar egin dut gero
amodioa deitu zera hori etorri zait burura.

Aldeginak ziren denak, zerbitzaria,
lejia usaina inguruan, hondakinak
biltzen ari zen zaku beltzetan. Ibili eta buelta
aratz nahiez zaborra gertu amaitzen dut beti.

ANGELINES BERASATEGIK
XABIER BIZIRI
—b—

Ni ere izan nintzen
noizbait ere bizitzaren alde horretako izakia;
denbora dexente egiten du, dena den,
begietara datorkidan iluna bezainbat ia.

Eta zu ilusioaz mintzo zatzaizkit
egunez eta haien plazerez,
eutsi egin behar diodala, diozu,
goiari eta neure buruari. Gora bihotzak
dagizu orro, utzi jarrera negatibo hori,
nire begiak lainoz garbitzen saiatzen zarelarik.

Alferrik! Xabier, nirean nago
orain, heriotza baten ondoan,
bertan gora dago dena eta ni,
eta kosta egiten da, ez uste,
bizigintza ofiziora itzultzea,
kosta egiten da kamisoi begirada utzita
kolore nabarregiko egongela honetara jaistea.

Ze hemen funtzionario batek
artxibatu txostenak bezala
baitoaz egunak egunen ondotik
elkar iduri duten bizipenen atzetik,
eta denak du erromantzeetako tragikotasun hingatua
eta edertasun nekatu eta firfildu hori.
Hor ordea, bizitza, soil-soilik
txandalez nonahi eta tripa lodi.

Ez eskatu arren itzultzeko,
ez esan kronikoa dudala
uzkurtasun maniako depresiboa;
bizitza etxean ez sartzeko
amarrua dela esan nahi nizuke,
huts-hutsean tristura,
ilun
ilun-iluna.

XABIER BIZIK
ANGELINES BERASATEGIRI
—b—

Bizitza, ez gara esateaz inoiz nekatuko,
leku tristea dela jakina da.
Tribulazio basoak paisaia gisa,
etsipen errekak belatzea zeharkatzen,
oinazea ematen duten arbolak,
piztia hurkoz beteriko muinoak,
iruzki kiskalgarria.

Eta hala ere zeruari buruz
pentsatzen jartzen naizenean
nahiago dut, mila bider ere,
musulmanen zerua
bere baso, erreka, arbol, iruzki,
bere oturuntza libertigarriekin
kristauen zeru abstraktu
eta estatikoa baino.

XABIER BIZIK
ANGELINES BERASATEGIRI
ETA ANA YOLDIRI
—b - c—

Filosofo izan nahi nuen.
Arront murgildu nintzen
Heraklito ilunaren uhaldean
beti bera eta beti beste.
Boladak egin nituen, txandaka,
estoikoen baratza xumean eta
epikureoen jauregi dotorean. Neurriaz
ikasi nuen eta Ni delako honetaz.
Platonek liluratu egin ninduen,
haitzuloarenak batez ere. Aristoteles
bildumagile bat iruditu zitzaidan,
Leibniz, Spinoza, Descartes
eta bere buruaz Arrazoi harro hori.
Kantekin giltzapetu nintzen
Hegel bera gorrotatzeraino
harik eta Gezurra eta Egiaren artean bereixtea
gutxi baino bakanen dohaina zela

konturatu arte.

Aitzina

bizigintza izanen da nire alorra,

bataz beste,

Bataz Bestea egitea, alegia.

ANA YOLDI GOMEZEK
XABIER BIZIRI
—b—

Nik gazte guztiek bezalaxe
ez nuen traturik egin eta
egiteraz, ni, behintzat
ez nintzen konturatu ere.
Musu-truk edan nahi zituen
gaixo honek bizitzaren ardoak
eta amodioa (esate bat da).

Ama, ama
koko uste eta pupu izan!

Gero derrepentean denborak
ikerketa batzordeak eratu zituen
plazer tasak neurtzeko. Biologia bera ere
orduen ekonomia bihurtu zaigu.
Eta gaixo honek urre gorria truk
bada ere edan egin nahi ditu
bizitzaren ardoak eta amodioa;
eta ez da esate bat.

Ama, ama
koko uste eta pupu izan!

Askieza berezkoa duela
aspaldi ikasi nuen,
interes altuarena urtetik urtera
sumatuz joan natzaio;
iruzurrarena, ordea,
hau ziria!

Amatxito, amatxito
koko uste eta pupu izan!

GRAZIANA GOMEZEK
HILOBITIK
—g—

Nik, Graziana Gomez, egin nuen nirea
gure gizon hura, infernuan bego,
kontentatu, lan egin asto-aberea
bezala, hark marinel ospa egin eta gero

(koinata ere lehenago joan zen ihesi)
seme-alabak hazi eta hezi inor gabe
bizitzari kara eman, ez da, ez gutxi:
poz batendako makina bat atsekabe.

Ohitura denez ongi esan beharko baina
nireek banaizenik ere ahaztu dute.
Zein krudela den denboraren izaina!

Zein krudela Jainkoaren zerua bera!,
mendeku gabeko erresuma abrea.
Hemen natza eta lurra ez da bihozbera.

ANDRES BASTERRAK
ANA YOLDIRI
—C—

Argia itzali zenuen eta esan:
«Ahantz ditzagun, une batez bada ere,
geure vouyerrak, ilunbetan
ilunbetan hobe».

Bi ezezagun izan ginen
ihes joanaren segadetarik
borrokan bihotz zartakoka
desioaren haragitara eztandan sartzen.
Gero deus ez gehiago.
Hondakin ustelduak eta ilunbeak.

Behingoan maitatu genuen.
Elkar?
Oi, hori beste kontu bat da.

PERPETUA YOLDIK

—9—

Amodio kontutan legerik ez dela
ongi asko ikasi badut ere
geurea ez zen naturala

Horrexegatik egin behar izan nuen ospa
hamazazpi betetzearekin
hemen aitortu ezin dudan bekatu batengatik

Ihesi, ze, behin esan zidaten bezala
binaka egin pekatuak
banaka ordaindu behar baitira

infernura jaitsiz salbazioa bilatuz.
Nire gorputzarekin pagatu nuen
Bilboko karriketan Marseillako portuan

pentsio zikinetan hotel dotoretan
Zahartzera karrikara atzera
Degradazioa aratz nahia baino ez da

Banekien zerura bidean nengoela

«Cuánto es, amor?» edo

«How much it is, baby?»

frantsesez edo

alemanez galdetzen zidatenean

Galbidean atzera ere

«Laztana, zenbat dun?» galdetu zidanean.

PERPETUA YOLDIK

—9—

Zerengatik egin haiz puta?

Zerk ekarri hau hire etxetik honen urruti
zabortegi honetara galdetu zidan behin
marinel euskaldun batek bi galderak
galdera bera bailiren

Eta nik ez nekiela zerengatik

Egun hartan nire gorputzeko
dorre arraildura neureganatu zenean
hiru galdera egin zizkidan
galdera bera bailiren

Zerengatik daukagu pagatu beharra?

Iragan uherrekoek zerengatik dute akabera tristea?

Zerengatik izekitzen dun pasioa ustekabeen?

Eta nik ez nekiela zerengatik

Larrua jo ondoko tristuran galdetu zidan
galdera guztiak galdera bera bailiren

Noraino joanen haiz ihesi?

Zerengatik gaitun amodiorako elbarri?

Zerengatik dun gure hau bekatu?

Zerengatik daukagu pagatu beharra?

Eta nik ez nekiela zerengatik

ez nekiela

ANDRES BASTERRAK
ANA YOLDIRI
—C—

O'la la l'amour
udatzena joana da
agur kuttuna agur
bihotz enea
kitzika jantzi ditu bordatuak
ene bihotza
izotzezko bordatuak hotzak

Primadera eria
akabantza dantzan
urrezko egunen jolas
Laño itsasoa
eta arras gorri guretako
itsasoa laño
guretako zer gehiago nahi, ene maiteño

Arrimatu ginela
zioten endredatu
nioke nik zaila da

nor nork jakiten
bizitzaren mordoilo itsuak
jakiten nork nor
mordoiloak aise hondatzen baitu edonor
Zu karana zinen
ez zenuen neurritzat
gaurko bihotza bete
herra mikaztu
neu gazteagoa nintzen gogoz
mikaztu herra
gogoz ez nintzen gaurko vouyeur oiherra

Eguna joan eguna jin
izaren patu uherra
iltzatu ginen
elkarrengana
mitxeleta argira bezala
elkarrengana
argi minez erre guregan zetzana

Bazeneki zer axola
didaten gure minek
hagitz aspalditik nabil
ezin sosega

eta ez da ni delako herdoilaz
sosega ezinik
herdoilaz garbituko nauen amaren umerik.

Amodioa ote zen?
Hitz handiegia akaso?
Agur eta besterik gabe
dezagun oroit
ertz horituko postal urdina
oroit dezagun
eta dena ezaba dadila nola hagin
Eta aitzina maite
ez jantzi bizitza
handiegi datorkizu eta
aitzina tikili-takala
dakarkizula nahi duzuna
maite tikili-takala
erdi-gixon arrunt konbentzionala

JOSEMA IRUTAGOIENEK EUSKAL HERRIAZ —d—

Ez etorri niri erraten erre
hatxearenak kontu horiek ez eta
zazpiak (batzuk) horienak erre
ke erre errepikatzen ere neka

harri garaiko kranoenzefalia
dantza eta aspaldiko arraza
ez aipa, ez dira erregalia
Barregarri gara herri garratza

ez esatearren otso saldo lakarra
Oroimenaz zezen suzko egitera
iraun beharra dugu arrazoi bakarra

Beraz kontu egizue pozkarra
bazabiltzate: adi!: pikutara!
aspaldian ez bainaiz zuetarra

ANGELINES BERASATEGIK EUSKALDUN IZATEAZ —b—

Agi denean hemen izan gara
urteak eta urteak, mendeak eta
mendeak, denbora denbora denetik.

Agi denean we are part
of a big big mistery.

Txosten bana leitu dute
Albert Smithek eta Akura Mishimak
Euskal Nazioarteko Ihardunaldiak 5. delakoan.

Gure kaskezurrak Cromagnonetik omen datoz
Neanderthaletik iragan gabeen.

Gure artean RH negatibotasuna
inon baino altuagoa da.

Gure seduzitzeko jolasaren keinuak ere
desberdinak omen dira.

Jakina da, sortu dugun Hizkuntzak
ahaide ezagunik ez duela.

Nondik gatoz? Nora goaz?
Harantzago iluna eta ezagutezina.
The mistery whose we are part.

Eta hala ere horrek guztiak
ezer gutxi laguntzen du bizitzen.

JOSEMA IRUTAGOIEN
ZENTSOREA
JOSEMA IRUTAGOIENI
KARGU HARTZEN
—d—

Gure herriaz ez gaituk hizketatuko,
ez eta ere, denoi ustez, jaiotzez
suposatzen zaigun normaltasunaz.

Di da jarriko gaituk, hi eta biok,
nerabearoa delako horretan.
Hor zegok koxka. Ibili bahabil
haurtzaroa gora, haurtzaroa behera:
berriketak! Nerabearoa duk
arorik krudelena.

Nerabearotik bada, sastatu hinduten
kontzientziaren orratz ziztagarriek
eta nor izanaren erroek.
Jarrai-n sartu hintzen, akordatzen?,
azal ziezaaten bizitzaren mitologia:

Borroka! Aberria! Amodioa!
Nolako epika halako elegia.

Neskak, alkohol gauak eta koadrila,
bere ergelarekin, hi herorri,
koadrila izanen bada. On puska
hintzen mutikoa!, eta inuxentea
hamaika ziri gogorrek bigundutakoa.
Eta zer diok hire lagunez?
Kuttunenak, errukia zian harexek,
dastatua zian, hi ohartzerako,
burdinaren zaporea eta burdina egin dik.

Beste hark gora nahi zian
eta gora egin dik, ez ordea
bizitzaren kotizazioez gorago,
eta hor zabilek, kontatu dik,
etsipen mailegutuan interes altuenera.

Hiri, ostera, denak egiten zian ihes,
neskek, mutilek, gauek eta mitologiak,
baita bizitzak berak ere;
eta zergatik jakin gabe
hogeita hamarretan gaudek.

Hor aritzen gintuan, hi eta biok,
kurba normalaren bazterretan sufritzen,
eta bazterrez bazter bizitzara
erori omen hintzen, hire hitzetan,
ezkondu eta amnesia pilulen zale egin
borragoma itzelaren kontu harekin.

Adiezak, bazterrez bazter gabiltzanez,
hi eta biok, hizpidera ekarriko diat
%10arena. Bai, motel, bai
gizonak maite hituen eta dituk.

Nik jarraitu haut, (hauek lanak),
hire gehiegikeriak begiratzuz,
jarraitu inork sekula guztian
jarraituko ez hauen moduan: honetan
elkarrekin gaudeneko halabeharraz.
Haragi biziko hire erromantizismoa
hondoan estali nahi nian nik, hik baina: kia!
Muturreko gizona izan haiz beti,
eta gaur, jada, bizitzaren
bestaldean hago eta barrikadaren.

Amore eman duk, ez ezak ezetz esan,
lortu duk, bai, lortu duk,
nahiz eta gaur etsipenaren bazka izan,
bai kabroi zaharra, bai armairumari,
kurba normalaren erdi-erdian gaudek, azkenik!

JOSEMA IRUTAGOIENEK PARKEAN —d—

Beharbada hori. Motxilero itxurako hori.
Zertan ote dabil parke honetan? Akaso
gizonek gauaren arrimora mixeriak
larru baten kontra nola ixurtzen dituzten
ikasi nahi ote du?

Zapatilak eta larruzko txupa,
hankak zabalik, bularra bizkarroi,
munduaren kontrako bakero prestu
eta tinkoa. Seguru
maritxuak izterpetik pasatzea
gizontasunaren sendagarri
justizierotako daukala.

Nola gogoratzen dizkidan
nire koadrilako zenbait duela
zenbait urte eta zikinkeria:
bular zabalak, hitz ozenak,
zein natural bilakatzen zuten

mundua eta besteren izatea
beren izatearen berezko ondorio.

Nola gogoratzen didan
aspaldiko neroni hura mengela,
zalantzontzi, tropoilu antsiatu noragabea!
Nola gogoratzen didan
gauza izateko halabeharrez asmatu
barrunbe gaixo eta errea!

Nola gogoratzen dizkidan haiek bezala
izan nahian egindako oker galantak!

Gustura joko nioke larrua gustura
sartuko nioke buztana ipurditik,
ez lauoinka ikusirik desiratua
niretako ostu ahal diodalakoz,
ez, ongi asko baitakit menderatzeak
eta imitatzeak ez dutela izaera ematen,
ez, aspaldi esperatu mendeku hutsagatik baizik.

LUKAS OIHENARTEK

—i—

Hogeita hamar urtetik gora daukat
gaur larunbata da eta atera egingo naiz
aurreko larunbateko garagardoak edango ditut
garagardoek hitz berak ekarriko dituzte
hitz berberetz jende berberari mintzatuko natzaio
jende berbera ustelduko da leku berberetan
leku berberetan beste egun bat alferrik galduko da
egun horrek beste bizi puska bat garraiatuko du
bizi puska horrek beste bizi puska bat
puskaz puska goragalea etorriko zait
goragalez madarikatuko dut alkohola
alkohola eta borrero itsu hau
Gaur ere ez da batere arrastorik zeruan
eta zauri berberetan esnatuko naiz bihar
Bere bostean iraungo du denak
koxka bat estuago ordea

Trokelatu dit denboraren makineriak oinazea

TXEMA KORTESEK
JOSEMA IRUTAGOIENI BURUZ
—d—

Iluna da bizitza sekretuaren kondenapean emazte bat, ederra, zaindu eta laketzeko ume batzuk, bizilegea, hazi eta hezteko, etxe oparoa hiritik gertu baso ertzean.

Aisa hauts daiteke kurba normalaren bakea. Desio haragitu zaio garunean igurtzika karminez pintatu ditu ezpainak, haginka dator gaua bazterrez bazter; eta parkea.

Dio norbera ez da eman urratsen erantzulea. Bi ezezagunek tupust egin dute gorpuzpean. Gero isiltasuna etorriko da nola goragalea.

Eta zentsorea, errua eta gorrotoa. Argi urratzean bere baitaratzea. Imintzio arretatsuz ezpainetako amnesia arrastoak ezin moldatuz.

ALICIA GARCIAK
—d—

Dena akabatu da
benetako gauzak akabatu bezala:
txilio ito bat, urrats batzuk urruntzen,
harriduraren zaplasteko izotza,
gorputz baten amildura braustekoa
eta kito.

Ondoren
ofizioaren ikaste nekeza heldu da,
orduen makineria oztina asmatu,
bizitza atzera zainetan ziztatu,
arratsa gorputz monstruosoaz garbitu
eta desioz.

Bai, apartetik dagi zaunka bihotzak!

LUKAS OIHENARTEK

—i—

Joan deneko gaztaroaz geroztik
normalkuntza da gauzarik aipagarriena.

Zurbilkera erromantiko hura
erantzi egin genuen
bizitzeko itxurak beharrezko
ez zirelakoan.

Horrela sartu ginen bilutsik
naif usteko istorio kaskar honetan:
bizitza.

Hegan nahi genuen hegan
Peter Pan bezala.

Eta auzolanerako Canpanilla
badugu ere, bizitza
bakarlana baino ez da:
puskak izanen dira,
aztarnak, orenen ehortzea
eta azkenean, tiro bat.

Gero gure begi zabalak
ezin zabalago.

Hegan nahi genuen hegan
oi Peter madarikatua!
oi Peter pum!

LUKAS OIHENARTEK EUSKAL HERRIAZ —i—

Gure posibilitateez gaindi bizi omen gara;
pastoraleko iragana eraiki dugu,
gure oraina kanpamendu abandonatua da
eta gure etorkizunean, alafede!,
tronpetek zarata egingen dute
egun brilantegi batean.

Ez omen da nahi genuena
ezen guk artzain herria
izan nahi omen baikenuen,
baina Historia etorri zen
eta batailak, eta garaiak
hauek bezain beltzak, seguru.

Horrela, bada, hemen gaude
epikara kondenatuok
lirikaren lainoak jasotzean ere
bataila galduen arrastoak

baizik ez baitira ikusten,
eta gorpuak, gorpu asko.

Ero dugu litzatekeen lege epikoa
ero gaituzte bihurtu zaigu
eta horrela bizitza
beti zaigu posibilitateez gaindi.

NEMESIO LAKARTEK
AGURE ETXEAN
—h - j—

Negua zaharraren borrrerua.

Alde egin beharko dinagu
zortziak ditun ia
Oi uda egun azkendu hau!
Iraila eta ilun

Lan ederrak egiten nitinan nik
lehen, orain erreuma zeukanat
izterrean eta semeak...
Hura ere eraman zitenan!

Halaxe egoten naun leihoan
eguna noiz akabatuko espera
Uda behintzat igaro dinagu
Borreroari zionat izu nik

JOXEMIEL ERREPARATZEK

—h—

Tabakoaren hura nauzu.
Akordatzen zara, badira
orrialde batzuk. Denbora
pasa da eta neronek
biriken errebelioa gorabehera
hesteak botatzen segitzen dizut,
noizbait ere errebelioak hautsak astindu
eta otsokolpea joko duelako esperantzetan.

Gizarte kaskarra gure hau!
Telebistaren doilorkeria zuria ametitu
eta bekatuaren ideia
erretzea bezalako txikikerietan
inkarnatu duen hauxe!

JOXEMIEL ERREPARATZEK EUSKAL HERRIAZ —h—

Euskal herria 1

Diozu:

Nola iraun du kultura honek
honenbeste urte bizirik?

Erraza:

gure buruen etnografoak gara
ezinbestean

Euskal herria 2

Diozu:

Nola iraun du kultura honek
honenbeste urte bizirik?

Erraza:

bidaiari ingeles erromantikoak baino
ez gara gurean

Euskal herria 3

Diozu:

Zertan ari zarete orain?

Erraza:

Bilboko txoriak

eta Orira nahi

Euskal herria 4

Atzerri, atzerri

aberri, otserri.

Euskal herria 5

Diozu:

Nola iraun du kultura honek

honenbeste urte bizirik?

Erraza:

balizkoa balizkoan beti

Euskal herria 6

Euskal Herria zoin den zoroa

mundu guztiak badaki

Nik aberriño bat izaki

eta beste batek eramaki

Izorraki!

Euskal herria 7
Leku guztiak dira
ezinezko urrutikoak
urruti ezagunak
erre

Euskal herria 8
Euskalduna naiz eta
maite dut
errezesiboa delakoz

JOXEMIEL ERREPARATZEK

—h—

- Euskal batzarra: euskal jai alaia
Euskal batzarra: borroka eguna
Euskal batzarra: auskaloko euskala
Euskal batzarra: traila lai lai lai
Euskal batzarra: euskaraz eta kitto
Euskal batzarra: etnografia zio
Euskal batzarra: otordu txit ederra
Euskal batzarra: gogoerre malkarra
Euskal batzarra: garrasi eta ika-mika
Euskal batzarra: buruko min mina

XABIER BIZIK

—j—

Frantses enpelukatuak izkribatu zuenean

«Pentsatzen dut, geroz, banaiz»

Jainkoa paratu zuen euskarri

eta gizakia morroi

Jainkoa da kartzela

esan zuen erromantiko germaniarrak

eta tiroz bota

eta hil zuen Jainkoa

Konszientzia da kartzela

esan zuen Vienako judutarrak

eta areagotu egin zuen

gogo eta gorputzaren arteko haustura

Sistema da kartzela

esan zuen hiesak jota hil frantsesak

eta pentsamendua psikiatriko zuria zela

erakutsi zigun

Izana da kartzela
esan zuen «Izana eta Denbora»renak
eta segunduak baino ez zizkigun utzi
eskuartean
Barkatu baina
denbora da kartzela
dio Gil Berak

Gerora zahartzea lekuz aldatzea baino ez da

PAULO URRUTIK
TOMASA IGANTZIRI
—j—

Bizitza goldean aritzea bezala dun;
idiak aurretik zihoazen,
herorri atzetik, Herio, ordea,
itaurreko beti.

Mara-mara odolusten dun
odolaren mintzoa ildoan barna,
zenbat eta sakonago hainbat nekezago;
eta horrela akabatzen dun ildoan,
soroa eta arratsa bera ere.

Uzta hondatu dun bazter idor hauetan.

TOMASA IGANTZIK
PAULO URRUTIRI
—j—

Bizitza liburu bat bezala duk
halaxe leitu zioat bati
jaiotzean paratzen omen diate
lehendabiziko hitza
egunak dituk orrialdeak eta
asteak eta urteak kapituluak
Pentsatzea eta odolaren mintzoa, ziotek,
lerro arteko tarte zurietan aritzea duk
eta horrela ustekabean beti
ezkututzen gaituk mundu honetatik

Ez zegok epilgorik
liburu osoa epilgotako ez hartzeraz, behintzat

XABIER BIZIK
ASTEGUNA HERRIAN
—j—

Egurra txikitzen ari den hori
guda bateko hondakina dateke
hiru xahar eleka ari dira agure etxean
argi epela dario karrikari
almientearen bandoa: bihar auzolan

Pol-pol ixurtzen da odolaren mintzoa
bizitzaren anfora bete arte
mar-mar ari dira Jubilatu etxean
eta hara doaz umeak algaran
galdutako baloiaren bila
Eguna etzan da karrikan

Jitoan doaz hodeiak zeru zabalean
amets dagi bideak makal artean
egonean ari du denbora
artzain tantaia bailitzen

Gazte suharrenek ere
asteburuetara
desterratu dute bizi beharra

JOXERRA AGIRREK
AFALTZEN
—a - b - f—

Zuri dago plaza, aulkiak isil
hozminera exiliatu estatuak iduri,
gauetzen ari du eta elurra
farolaren argira itzal herren bat
dabil atezuan, zerbaiten bila
karrika gora karrika behera.

Hutsago jantzi da dena. Hutsago
zuek gure artetik ezkutatu zaretenetik.
Hilabete, Mikel, gure artetik aldegin
eta absolutuan barneratu haizela.
Eta afari honetan hire gomuta
ospatu nahi badiagu ere
bizitzari ulertezin zaizkiok
horko uhalde, mendikate
eta bidezidorrak. Ezabatu
egiten ditik eta mapak
mutu bihurtu. Ez gaitzak ahantzi
hagoenean hagoela.

Hilabete, Endika, urrutiko
telegrama haizela eta hire berriak
gure irudimenaren lakuan
galdu eta ernetu egiten dituk
asaldagarri edo izugarri
edo izugarri eder bihurtzeraino,
goroldio eta laharrez jantzi
ur-iratxo bahintzen. Hire
gutunak haiz.

Sua pindarka ari da, purpura
urdin eta honatx hemen gu
giza emakume soilak orain
atorrutsik eta bihotza zabal
geure buruen setioari ihesi.
Mahai gaineko platerak
bizitakoaren kontsolamenduari
diote men eta hondarrak
eskuetan erabiltzeko,
afalosteko hizketa bitartean.

Xeratsu erori dira oroitzapenak
aire epelean kulunka: Baionako txango hura,

eguzki arratsaldeak, hain oso
eta orozko mozkor arre haiek
trago luzeegitan. Masailak
gorri besarkatu gara
besarkagabeen, xamurtasun ia infinito.
Eta horrela sortu da
antrazita auskaldarra bailitzen
horren maite zenuten kanta:

*Xoxo beltz bat banuen
kaiolan sarturik
egun batez neguen
hil zen gizajoa
zelaian sartu nuen
xokuan xoxua
eguna argitzen denik
xolo hartan xolo hartan
xoxuen kantua.*

Gero tristura lurreratu da
negu gorriko hegazti erratua bezala
eta denok edan dugu pattarra
bizkarretik heldu hotza,
zakur amorratua, zakur gosea
uxatzearren.

Elurra ari du kanpoan.
elurra ari du karraketan
elurra kaiolako zirrikituetarik sartzen
elurra xoxoaren hilobi gainean
elurra Euskal Herri osoan
elurra gure bihotz hormatuetan
elurra
zuen arrasto lurmenduak estaltzen.

JOXEMIEL ERREPARATZEK AFALTZEN —h - a - d - f—

Ez dakizuela zer egin duzuen bizitzarekin. *Deskafeinatua*. Erruak ez zaituzte logabetzen etxea ia pagatua duzue eta zimurrago daukazue aurpegia eta bihotza. Eraiki duzue dudatik babestuko zaituen ideia tinko bat bezala etxea, izan dituzue seme-alabak horrela traizioa uxatuko duzuelakoan. Gutxi da zinetenetik gelditu gutxia memoriaren herdoila, *hutsa bai eta azukrerik gabe*; bizimodu proletarioa, diozue, asko moduzko etxean progre moduz mutxoasmo aspaldi oso aspaldi gorri eta borrokalari izan auzo erresidentzial batean.

*Erdiketa batekin nahikoa
bai hutsa.* Memoria
konbokatzen duzue manifara
salba zaitzaten denboraz
eta zuen buruei egin iruzurrez
eta herrestan datoz
poliziez beteriko furgoiak bailiren
larrualdi kirastuak
bost duroko pentsio zikinetan
eta Ducados-ezko eztabaidak
(utopia mon amour)
Baionako txangoa non, diozue,
benetan bizi izan zineten,
eta erresumina zuekin
beti teman
eta honaino ailegatzeko
garraiatutako gau guztiak
alkohola eta gezurraren arteko zerak
malko itxurosoak, autoerruki nardagarria.
Ez koparik ez, eskerrik asko.
Akabatu dira iraganeko batailak,
hau hemen da, egunero gaur
eta injustizia, gazte zinetenean bezala,
lege demokratikoen oinarri da.

Segi hizketan. Memoria
konbokatu udazken arratseko goiz batean
esna gaitezen sozialismo betean.

Garratza dago, garratza kafea.

JOXERRA AGIRREK EUSKAL HERRIAZ

—a—

Nire memoriaren hilerrian dautza
negu mineko elurte birjinak bailiren
denborak erraustutako harlauza
hautsiak eta bizi puskak jada iren.

Euskalduna dio nire jaiotze xendan
eta Don Ahituari eskaini baseliza
erori bat ikus daiteke nonbait. Zorretan
nago paisaiarekin batez ere. Oteiza

eta bere Hutsa irrikatu nituela
egia, eta lagunak eta hizkuntza hau
(bost zaharren) eta Laboaren akuarela.
Gero apaizgo kerutsua izan nuen garau

Axular axuta eta Bartolome ozpina
eta bizipoz, modderno koadrila, jakina.

XABIER BIZIK
BOLERO JAIALDIARI BURUZ
—a—

Gaua ohi bezala
poxpolinez jantzi zen;
gorria, berdea, zuria eta
Lehendabiziko Bolero Jaialdia
San Sebastian - Donostia.
Jendez mukuru Victoria Eugenia
hotza, bainilazko izotza eta kanela
Xabier, prefosta, Habaneraz
Lete.

Gaua ohi bezala
poxpolinez jantzi zen
iragan urrutiko progreak,
orain iraunkorreko abertzaleak,
modernoak furi-furian
munduaren eskaparatean,
jaun traxedun txuxenak,
Donostiako damatxoak,
Probintziako donostiarrak, gazteak

gure etorkizun aizuna, atsoak
beren otsoen besotik,
Endika Lakarten aita eta baserritarren bat
edo beste,
arte onekoak ez Orixe!
Uitzikoaren zerutik desterratuak denak
denek dantza dute,
den-denek maite dute
ai, oi, ai
Infernuko Machin!

XABIER BIZIK

—a—

Hori esaten diot. Beharrik ez duen
bere burua eta egiten duena
bihotzetik hartzen. Beharrik
hori esan eta barre egiten duen
nire lagun Joxerra Agirrek.

Ingurua begiratzea besterik ez dago.
Horra liburuak, horra neurria:
Melankolia ergela, tristura sasikoa
hitza gora eta hitza behera
egilea bere burua sortzailetakoa
hartzen dueneko sinestea
(Gaur? Mundu honetan? Ba ote?)
erromantizismo kalakaria trostan
ironia falta negargarria, denbora
ihesean eta utzitako fita urreztatuak
ganbarako hondakin erraustuen artean,
moda aldizkarietako amodio muxina
moda aldizkarietan baino kaxkarrago kontua,
hori bai dena irudi karanez horniturik

telebistan biziago ematen duten irudiak,
dena esan behar baldin bada.

Erritmo berezkoa gehienetan faltan
mailukazoka besteetan. Baina...

bestalde, zergatik kezkatu?

Nork leitzen ditu?

Ofiziantek eta inork gutxik: izan ere
bizitzatik oso urruti amildu den artea
gaur bizitza mundurik hoberena ez bada ere.

Hori dena esaten diot. Beharrik
ez duen bere burua poetarako hartzen,
hori baino zuhurrago da, zuhurrago denez,
beharrik barre egiten duen maltzur eta barnetik
poesia, egun, nekrofiliaren adar bat dela
esaten diodanean.

JOXERRA AGIRREK
DEBRA WOOLF-I
—a—

Orain kontatzera noakizu
nahiz zuk ez aditu, horrela,
honen urrundik
nik ere damu dudala patuak
elkarri emandako su-eten erkina
eta inarra.

Nostalgiak artean
bataiatu gabe gintueneko behin hartan,
gogoan dut eguna, brilant eta Baionan,
eliza ospela eta arratsa
orbela bezala arboletatik erortzen,
xoxoen kantua eta, atzenean,
Anaren ezetza, heldu zen bizitzaren iragarle.

Wertherkilo baten modura egin nuen ihes
hondartzara eta han zeunden zu,
last day on hollydays, San Ferminetatik
Alabamako bidean, esan zenidan.

Ni, zu inpresionatu nahian edo,
amodioaren garratzaz hustuko nintzen,
The Basque Country aipatuko nizun gero,
beharbada Oteiza eta Axular
eta zenbait etnografikeria, seguru,
euskaldunok eta batez ere ni
jende apartekotzat har gintzazun.
Oh really, it's so exciting esan
eta barre egingo zenuen.

Behin haren antzera
zure gorputz otzana denborak
zikindu gabeko orbana balitz bezala
etorri zaidaneko gaur honetan
kontatu nahi nizuke
nahiz zuk ez aditu Amerikako
nork daki zein zokotan, bizitzaren
aldamenetan auskalo zein ohantzetan,
pozten naizela zurekin
haragiaren desordenuak tratatu izana,
kontatu nahi nizuke, horrela,
honen urrundik
desamorearen amorrazioz

eta mendekuz izan bazen ere
gero eta maizago ez bezala
egi-egitan izan zela.

MADDI SUSAEAK
DEBRA WOOLF-ENDAKO
HILARTITZA

—a—

Egunerokotasunaren zelaiak korritu zituen
desioaren segada xaxagarriak pairatu
pozaren dosi ñimiñoegiak,
nahi eta ezinaren bakarriketa ergela
harik eta, eginahal desesperagarrian, bere burua
bere buruan alatzen ikasi arte. Hura ezkerro
bihotz gorritan populatu zuen bizitza
jakinaren ganean izanik
jainko itsu batek egin promesak
etorkizunak kimatuko ez zituela.
Heroina, sexoa, eraman zuen hiesak,
logabetzea, ardaila, antsia, amodioa
ustekabe ohikoak baino ez
desolazioaren gramatika nareko bidaiari honendako.
Gero Herio hurbildu zen
itzala neguko paisaia zurian bezala.

XABIER BIZIK

—a—

Bataille-k dio, nik entenditukoaren arabera, orgasmoak etendura eragiten duela izatean horma batean goitik behera zarrast dagien arrakala bezala.

Arratsalde batean kalean zoazela zure ohaide bat aurkitu eta hitz egin beharra duzuelako aitzakiarekin kafe bat hartzera gonbidatzen zaitu. Halako batean aurpegia zurbil, alditxarturik seropositibo hitza aditzea iruditu zaizu «guztiek ez dute gaixotasuna garatzen» konprenitzeko gauza zara lur eta zur garatu hitzaren sekula ezagutu gabeko adierarik krudelenean.

«Zaindu beharra dut eta zuk ere frogak eginen bazenitu...»

Eta kafea dagoeneko izaki hotza mahai gainean.

Gero etxean bakarrik, ohaide errolda, antsia

zainetan geltoki gehiegiko trenea bailitzen.
Norekin? Xabierrekin? Mirenekin?
Ana, Mikel, Brigittekin? Norekin?
Eta gorputz goxo, bortitz izandakoak
patuaren aukera baino ez dira orain.
Baina nola? Nola? Zer egin nuen?
Eta kamasutra asepsiaz garbituko zaizu.
Non? Eta suak harturik doazkizu
tristura uxatu zizuten parkeak edo
benetakoa ekarri zizutenak,
pentsio ezkutuak hiriko auzune pobreenetan,
mendiak, basoak non gorputz atal hark
samurtasun epelez busti zizun gogoak,
autoak, zurea eta besterenak, etxeak.
Noiz? Eta egunak eta gauak
etorkizuneko hondamendiaren eszenatoki huts.
Estatistika eta laborria.

Negatiboa. Hala ere zureak egin du.
Aurrerantzean orgasmoa bera ere
bilakatuko baitzazu ariketa intelektuala
zer-nori-nork konszienteegiz gisutatu arrakala.

JOXERRA AGIRREK ETXE BERRIAN

—a—

Izen erratuko herri bat. Bidea
bi lizar zahar atarian, sahatsa atzean
belarra gorritxuriz hesirik. Etxea
arberazko geometria ilunkera eta
azkenera, egiazko bizimodua bizitzeko
irrika trinkoa, oraina zurezkoa izanen den lekua.

Sartu eta egongela egonen da, zabal-zabala
argiaren argiz transparentea ia
hori lodiak, gorrikara amestiak
urdin enantzak, granate ezinak:
sutondoa paratuko dut han
eta inguruan sofak
klartasunean nabigatzeko bapore.
Oroimenaren mugarri gisa
harat-honatako bizimodutik salbatu objektuak:
haurtzaroko marioneta adargabetua
argiaren zurgin, kaleidoskopio nabarra,
aitonaren Afrikako gerrako ezpata,

denboraz ilun eta zilarrez
nik bere burua bestelakoa nahi zueneko aztarna.
Dora Salazarren koadroa
non giza artifizioaren kirrinka
adierazten baita burdinazko menina batean
edo Asun Goikotxearen paisaia abstraktua
more lirikotan, beltz sakonetan, laino magenta,
melankoliaren habia. Eta hor,
etxean nonbait, hots batzuk
norbait bere zereginetan arituko balitz bezala.

Goialdean gela eta lan gela,
liburu batzuk eta diskoak,
mahai handi bat
izaki biziduna bailitzen arnaska,
leiho batetik paisaia urdinkera
(berdeak: ilunak argietara
buruaz beste eginez, arreak
multzoka kantuz, grisak
hegan nahiez, urrezkoak
alderrai, gorriskak
bizkarroi, urdin faunak)
liburuen pausaleku, ezen irakurketek
benetan gozatu eta barneratuko badira,

behar baitute paisaia bat
non begiak herra, non gogoia gal.

Gautzean laranja urruna
itzal erraldoietan erabakitzera doala,
lehengo hotsak emakume izanen dira,
ez dut amodioa esanen
baina bai elkarrekin, elkar gu
deneko tarte ezindu horretan,
atzipe gaitzan zoriontasunak ez bada
bai euriak, heze eta aratz nahiez
fruta zaporez ernatuko duen bakean.

ANDRES BASTERRAK
ANA YOLDI GOMEZI

—C - g—

Amodioaz ez dut hitz eginen
baina gustuko zaitut. Oso.
Oinaztura bezalako hotzikara
igotzen zait zangoetan gora.
Titiak handi, sostena fuera,
zil pareko maldan behera,
alua dardarrean, heze, umel
usain gatzatuak darizkiola.
Etzanik hankak zabalik
erdibi zaitzan begiratzen didazu
begiak plazerrez zirrikiturik,
ahoa hatsak-hatsari emanik
berehala sar dadila eskatuz.
Galduak dituzu, galduak
emakume etxekoandre progre
plantak. Ezerk ez dizu
gain hartzen eta orro dagizu
jauzi, bol-bol, inarrosi.
Ni lehertzear. Hatsankak

eta horra nola itotzen zaren
plazerrez egarri pottottatik gora
harik eta zintzurrean
txilio bat hiltzen zaizun arte.
Neroni esku arteko likido
lika baino ez naiz, alfonbran etzanik.
Egia da zure aita eta izeba
larrutan ikusi nituela txikitan,
ez dakit, beraz, nondik atera duzun
besterekin larrua joarazten dizudalako
gustuko ez zaitudala.
Vouyerra naiz, sinplementean.

JOXERRA AGIRREK
EGUNKARIAN PARATU
KONTAKTUA

—a—

Maita nazazun bost axola
hogeita hamar urtetik gora ditut
gorputzez ez perfektu
adimenez erdiko eta desioa
hagitz, benetan diotsut
zakila hantutzen dit
zurekiko posibilitateak berak

Zure arratsak nahi ditut soilik
xamurtasun apur bat
gorputza eta ferekak
igoal zait amoina gisa
edo mesede edo mendeku
zure arratsak larru ondoan
tristurarekin gautuz
egunak pozoindu diguna
elkarrekin garbi dezagun

Amodioaz hitz eginen dugu
ailegatzeko baldin bagara
esate baterako
laurogeita hamarretara

ANA YOLDI GOMEZEK
ANDRES BASTERRARI
EGUNKARITIK LEITUTAKO
BERRIA
—C—

Atzo beste gorpu batzuk agertu ziren bizitzaren ertzetan zauri anitzekin eta desolazio amiñi bat ahoetan. Poliziburuak emandako prentsaurrean adieraziaren arabera azken bolada honetan gertatu hilketak psiko-killer batenak dirateke. Badirudi gorpu guztiek ezaugarri berdintsuak dituztela.

«Bihotza hanpaturik daukate» esan zuen poliziburu batengandik espero ez zitezkeen hitzak erabiliz

«itotzetik salbatu nahian ohol arrailari heldurik egun asko pasa balute bezala».

«Begiak» jarraitu zuen «mindurik eta labanazoz josita daukate gorputz enborra».

Jada triskantza neurria hartu duten hilkintza hauek

argitzeko polizia gogor saiatzen ari da hipotesi bat ere baztertu gabe nahiz eta AMIrena (Amodiaren Mafia Iluna) ia erabat saihestu. Egunkari honek kontsultatu adituen arabera ordea mafia horren ezaugarriak ditu aipatu sarraski doilorrak:

Talking Heads-en musika lagun nahita egindako zintzur-egiteak iraunarazi ezinaren garraztasuna lekuz kanpoko zergati multzoa promesa bete bariko paxo higitua amerikak egin krudeltasuna eta denborak herdoiltzen hasitako mina besteak beste.

Nahiz jendea izuz egon egonean datza hiria.

LUKAS OIHENARTEK

—i—

Hor daude
denboraren atximizkei ezaxol
bere trajetan kateaturik
begira, azul metalkara,
bizi salbaia, nire hogeiak,
ni puskak baino ez nintzeneko
garai haiek: gure laurogeiak.
Puskak eta pipit bat
nora lehertu ez zekiela:
psiko hiltzailea, etxe bat sutan
inora gabeko bidean.
Begira zertan gelditu den
the wild wild life!
Ladies and gentlemen
tonight
the Talking Deads.

DENEK BATERA

Gutxira, ia gaur egin dugu sartzea,
belaunaldi hau galdu egingen da.

Bizitzen, esaten dena,
jarraituko dugu
bizirik irauteko
bizi direnen modura.

Behar gorritz josiko dugu
soinekoa, zikin-estalia,
geroko zikinez estal ditzan
egungo zikin gorriak.

Jokatu dugu
eta galdu, arriskatu
eta deus ez, bizi
eta biziuste. Erraza da,
sinetsi nahi nuke, ikasten
denboraren lezioa
eta etsipenarena.
Hauts eta odol.
Hauts eta odol.

Belaunaldi oro galtzen omen.

Hartua zor,

higatzea, ordea,

berez dator.

Berez dator,

higatzea, ordea,

hartua zor.